

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA JUSTIZIA SAILA

1155

EBAZPENA, 2017ko otsailaren 16koa, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita erregistratu, argitaratu eta gordailutu dadila EA Eren eremuko negozioazio kolektiboaren egiturari dagokion lanbide arteko akordioa.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2017ko otsailaren 2an, REGCON erregistroan aurkeztu zuten enpresaren eta sindikatuen ordezkariak sinatutako aipatutako negozioazio kolektiboaren egiturari dagokion lanbide arteko akordioari buruzko dokumentazioa.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Lan-agintaritza honi dagokio Langileen Estatutuari buruzko Legearen testu bateginaren 90.2 eta 3 artikuluan aurreikusitako eskumena, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua (2015-10-24ko BOE), betiere bat etorrira Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuarekin, zeinaren 16. artikuluan sortzen baita Lan eta Justizia Saila eta lehenengo xedapen iragankorrean ezartzen baita erregelamendu organikoak indarrean direla. Aplikagarriak dira, halaber, apirilaren 9ko 191/2013 Dekretua, urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuari dagokionez, eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua, hitzarmen kolektiboaren erregistroari buruzkoa.

Bigarrena.– Akordioa sinatu dute Confebask, ELA, LAB, CC.OO. eta UGT sindikatuen ordezkariak, Langileen Estatutuari buruzko Legearen 83. artikuluan eta hurrengoetan xedatutako eskakizunekin bat etorriz.

Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Akordioa Euskadiko Hitzarmen eta Akordio Kolektiboaren Erregistroan inskribatu eta gordailutzeko agintzea, eta alderdiei jakinaraztea.

Bigarrena.– Akordioa Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 16a.

Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendaria,
MARÍA ELENA PÉREZ BARREDO.

2017ko martxoaren 3a, ostirala

EAE-REN EREMUKO NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN EGITURARI DAGOKION LANBIDE ARTEKO AKORDIOA

Akordio hori Langileen Estatutuaren 83.2 artikuluan Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkariak handiena duten sindikatuei eta enpresa-elkarteei aitortu ahalmenaren babesean sinatzen da, eta haren xedea da EAEn eremuan negoziazio kolektiboko egitura bat ezartzea, baita Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldeko eta lurralde arteko estatutuaren araberrako hitzarmen eta akordioei aplikatzeko lehentasuna ematea haiekin batera gerta daitezkeen estatu mailako bestelako hitzarmen edo akordio batzuen aurrean.

1. artikulua.– Eremu pertsonala, funtzionala eta lurraldekoa.

Lanbide arteko akordio hau EAEn enpresa eta langileei aplikatuko zaie, baldin eta akordio honen 3. artikuluan aipatzen diren sektoreko hitzarmenen eta akordioen aplikazio-eremuan badaude.

2. artikulua.– Indarraldia eta salaketa.

Akordio honek indarraldi mugagabea du, argitaratzen denetik aurrera. Hala ere, legez legitimatutako alderdietako edozeinek salatu ahal izango du akordioa beren-beregi, gainerako alderdiei jakinarazpen frogagarri bat helaraziz 2020ko abenduaren 31tik aurrera.

Lanbide arteko akordio hau indarrean egongo da berau ordeztuko duen beste bat sinatu arte.

3. artikulua.– Sektoreko negoziazio kolektiboa eta aplikatzeko lehentasuna.

1.– Lanbide arteko akordio honek bermatzen du, EAEn 83.2 artikuluan xedatuaren babesean, EAEn sinatutako lurraldeko edo lurralde arteko hitzarmenak eta akordioak aplikatzeko lehentasuna, lanbide arteko akordio hau sinatu aurretik jada bazegoen edo ondoren egon daitekeen estatu mailako beste hitzarmen edo akordio ororen aurretik.

2.– Aplikatzeko lehentasuna aitortzen zaie egun indarrean dauden EAEn lurraldeko edo lurralde arteko hitzarmenei eta akordioei, bai beren-beregi hitzartutako aldiari, bai aurreraeragin konbentzionalaren edo legez ezarritakoaren fasean.

3.– Aplikatzeko lehentasun bera aitortzen zaie lanbide arteko akordio hau indarrean sartzen denetik aurrera EAEn sinatutako lurraldeko edo lurralde arteko hitzarmenei eta akordioei.

4. artikulua.– Dena den, EAEn 84.4 artikuluan estatuarentzat erreserbatutako gaiei kalterik egin gabe ulertzen da lanbide arteko akordio honen bidez ematen den aplikatzeko lehentasuna.

5. artikulua.– Batzorde mistoa.

Interpretatzeko batzorde misto bat sortzen da, zeinak ohiko egitekoak eta eskumenak izango baititu.

Beti ere, batzorde honi beren-beregi jakinarazi beharko zaio EAEn eremuan irekitzen den bestelako negoziazio-arlo berri oro.

Bilbao, 2017ko urtarrilaren 17a.

Confebask

ELA

LAB

CC.OO.

UGT